

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Behin betiko onestea 2019ko ekitaldirako aurrekontu orokorra

Bat etorritz Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuen otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 15. artikuluan xedatutakoarekin, eta ez denez inolako erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu 2019ko aurrekontu orokorrari hasierako onespena eman zion erabakiaren aurka, aurrekontu hori behin betiko onetsita geratzen da; hona laburpena, kapituluka:

KAPITULUAK	DIRU SARREREN HASIERAKO AURREIKUSPENAK, KAPITULUKA	ZENBATEKOA
	A) Eragiketa arruntak	2.314.893,12
1	Zuzeneko zergak	677.502,40
2	Zeharkako zergak	30.000,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	238.250,00
4	Transferentzia arruntak	1.351.300,77
5	Ondare bidezko diru sarrerak	17.839,95
	B) Kapital eragiketak	50.396,50
6	Hirigintza jarduketan ondorioz izan diren inbertsio errealak eta bestelako sarrerak besterentzea	0,00
7	Kapital transferentziak	50.396,50
8	Finantza-aktiboak	0,00
9	Finantza-pasiboak	0,00
	Diru sarrerren aurrekontua, guztira	2.365.289,62

KAPITULUAK	GASTUEN HASIERAKO KREDITUAK, KAPITULUKA	ZENBATEKOA
	A) Eragiketa arruntak	2.067.281,15
1	Langileen gastuak	590.395,23
2	Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	759.945,30
3	Finantza gastuak	2.000,00
4	Transferentzia arruntak	709.440,62
5	Kreditu orokorra eta aurreikusi gabeko beste batzuk	5.500,00
	B) Kapital eragiketak	298.008,47
6	Inbertsio errealak	228.008,47
7	Kapital transferentziak	70.000,00
8	Finantza-aktiboak	0,00
9	Finantza-pasiboak	0,00
	Gastuen aurrekontua, guztira	2.365.289,62

Udal honen aurrekontu orokorra behin betiko onesten duen erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratzen denetik aurrera.

Aldi berean, eta bat etorritik Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak 16. artikuluan xedatutakoarekin, argitaratu egiten da udal honen lanpostu zerrenda.

Lanpostu zerrenda

1- Karrerako funtzionarioak

Gaikuntza nazionalakoak.

A) Izena: idazkari kontuhartzailea; lanpostu kopurua: 1. Taldea: A-1; egoera: jardunean; titulazioa: unibertsitateko zuzenbide lizentzia; erabateko dedikazioa: osoa; destino-osagarriaren maila: 26; hizkuntza eskakizuna: 4, derrigortasun datarik gabe. Betetzeko era: lehiaketa.

Administrazio Orokorrekoak.

B) Izena: Administraria; lanpostu kopurua: 4; Taldea: C-1; egoera: aktiboan; titulazioa: batxilergoa, bigarren graduako lanbide heziketa edo baliokidea; dedikazioa: osoa; betetzeko era: barne promozioa.

– 1. lanpostua: destino osagarriaren maila: 19; hizkuntza eskakizuna: 2, derrigortasun datarik gabe.

– 2. lanpostua: destino osagarriaren maila: 19; hizkuntza eskakizuna: 2, derrigortasun datarik gabe.

– 3. lanpostua: destino osagarriaren maila: 19; hizkuntza eskakizuna: 2; derrigortasun data: 2014ko ekainaren 30a.

– 4. lanpostua: destino osagarriaren maila: 19; hizkuntza eskakizuna: 2; derrigortasun data: 2017ko irailaren 21a.

C) Izena: administrari laguntzailea; lanpostu kopurua: 3. Taldea: C-2; egoera: hutsik; titulazioa: lehen graduako lanbide heziketa edo baliokidea; dedikazioa: osoa; betetzeko era: barne promozioa eta/edo oposizio-lehiaketa.

– 1. lanpostua: destino osagarriaren maila: 19; hizkuntza eskakizuna: 2; derrigortasun data: 2013ko abenduaren 31.

– 2. lanpostua. Destino osagarriaren maila: 19; hizkuntza eskakizuna: 2; derrigortasun data: 2013ko abenduaren 31.

– 3. lanpostua: destino osagarriaren maila: 19; hizkuntza eskakizuna: 2; derrigortasun data: 1999ko abenduaren 31.

D) Izena: gizarte laguntzailea; lanpostu kopurua: 1. Taldea: A-2; egoera: aktiboan; titulazioa: Gizarte laneko diplomaduna; dedikazioa: osoa; destino-osagarriaren maila: 21; hizkuntza eskakizuna: 3. Derrigortasun data: 2013ko abenduaren 31; betetzeko era: oposizio-lehiaketa.

E) Izena: Atezaina; lanpostu kopurua: 1. Taldea: E; egoera: aktiboan; titulazioa: eskola ziurtagiria; dedikazioa: osoa, destino-osagarriaren maila: 11; hizkuntza eskakizuna: 2; derrigortasun data: 2002ko abenduaren 31; betetzeko era: oposizio-lehiaketa.

F) Izena: zerbitzu orokorretako behargina; lanpostu kopurua: 1. Taldea: E; egoera: hutsik; titulazioa: eskola ziurtagiria; dedikazioa: osoa, destino-osagarriaren maila: 16; hizkuntza eskakizuna: 1, derrigortasun datarik gabe; betetzeko era: barne sustapena / oposizio-lehiaketa.

G) Izena: zerbitzu askotarako behargina; lanpostu kopurua: 1. Taldea: E; egoera: aktiboan; titulazioa: eskola ziurtagiria; dedikazioa: osoa, destino-osagarriaren maila: 16; hizkuntza eskakizuna: 2; derrigortasun data: 2007ko urtarrilaren 1a; betetzeko era: oposizio-lehiaketa.

H) Izena: Mantentze arduraduna; plaza kopurua: 1. Taldea: C2; egoera: aktiboan; titulazioa: lehen mailako lanbide heziketa edo baliokidea; dedikazioa: osoa; destino-osagarriaren maila: 19; hizkuntza eskakizuna: 2; derrigortasun data: 2014ko ekainaren 30a; betetzeko era: barne sustapena.

2- Langile lan kontratudunak

Aldi baterako kontratazioa.

A) Izena: Peoia; lanpostu kopurua: 5. Taldea: E; egoera: aktiboan; Destino-osagarriaren maila: 8; Lantokia: udalerria.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Arespalditza, 2019ko maiatzaren 3a

Alkate-lehendakaria

GENTZA ALAMILLO UDAETA